

Ablitas (El Trujal) eta Barillas

N-3010 errepidea, KP: 7,300



Gunearen deskribapena

Atsedenleku txikia herritik Tuterarako irteeran, errepidearen ezkerreko aldean. Lorategi-eremua eta ondoko pinudia hartzen ditu.

Bankudun hainbat mahai ditu, bai eta bi urmael txiki ere.

Landaretza pinu-sail batek (jada helduak), bi lizarrek (urmaelaren muturrean), heriotzorridun jardinerak eta heriotzorri-lerrokadurak osatzen dute. Multzo osoa nabarmentzen da freskotasuna ematen duelako eta ingurune estepario eta gogor horrekiko talka egiten duelako; gainera, aipatzekoa da herrigunetik gertu dagoela.